

OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIEI BURUZKO ETA OBRAREN JAKINAREN GAINERAKO ORDENANTZA

Udalbatzaren helburua bere administrazioaren bilakaeraren prozesuan aurrera egitea da, eta administrazio arina, eraginkorra eta efizientea egitea, era berean ulergarria eta Lazkaoko hiritarrengana iristeko modukoa.

Horrek administrazioko prozesuak erraztea eta argitzea eskatzen du, burokrazia tramiteak saihestuz, tramitazioa laburtuz, arin ebatziz; era berean bere iharduerak gauzatzerakoan ordenamendu juridikoa beteko dela bermatuko da, hasi tratu berdineko printzipiotik, zio eta helburu justifikagarrien bateragarritasunetik eta norbanakoen askatasuna errespetatzeraino.

Hiritarren ihardueran Toki-Administrazioak parte hartzen duen kasurik bereizgarriena lizentziak ematearena da; aurrea hartzeko kontrol ekintza da, administratuak lehendik duen eskubide baten adierazgarri; bere bidez, gainera, legeak ezarritako mugak ezabatu egiten dira eta iharduera jakin bat burutzeko ezarritako debekua kentzea du helburutzat.

Hirigintzako araudiak eta bereziki Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri-Ordenazioari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 242. artikulua eta Hirigintza-Arauri buruzko Erregelamenduen lehen artikulua, ordenazioko planek edo ordenantzek zehaztutakoez gain, udal-lizentzia behar duten egintzak jasotzen dituzte.

Lizentzia kasurik beraiazkoenen artean daude obrak egiteko lizentziak. Lazkaoko Udalean urtero obrak egiteko 250 lizentzia jasotzen dira, eta horietatik %80 obra txikiak egiteko dira. Guzti hori ikusirik, Udal honek egoki iritzi dio obra txikiak egiteko lizentzien egiterapenaren eskaera, tramitazioa eta kontrola araupetzeari, bere barruen obren beste maila bat ezarritik, obraren jakinaren gainekoa, hain zuzen ere, hirigintza araubidean hain eragin txikia izategatik, Udalari jakinaraztea baino eskatzen ez duten horietarako.

- 1.- Ordenantza honen helburua obra txikiak egiteko lizentzien eta obraren jakinaren gainekoaren egiterapenaren eskaera, tramitazioa eta kontrola araupetzea da.
- 2.- Ordenantza honen ondorioetarako definizio hauek hartuko dira kontutan:

Obra txikiak: Higiezin baten egitura edo elementu garrantzitsuenei eragiten ez dietenak dira; teknika errazekoak eta eraikuntza eta ekonomi alorrean garrantzi gutxikoak, bolumenean, erabilera subjektiboan, guztiek erabiltzeko instalakuntzetan eta zerbitzuetan edo etxebizitzan eta lokal kopuruan aldaketarik ez dutenak, eta kanpoko diseinuari, zimendapenari, mota guztietako obrako eraikinen eta instalakuntzen egitura edo ziurtasunari ere eragingo ez dietenak.

Obraren Jakinaren Gainekoa: garrantzi gutxiko obrak dira, aurretiazko lizentziarik behar ez dutenak eta soilik Udalari jakinaraztea eskatzen dutenak, jakinaren gainean egon dadin.

- 3.- Obraren Jakinaren Gaineko kasuak dira ondoren zehaztutako hauek:

- 3.1 Lehengo forma eta kolore bera mantenduz egindako leiho aldaketak.
 - 3.2 Eraikinaren egitura ikutu gabeetxebizitzetan egindako barne erreformak.
 - 3.3 Kolorea mantenduz egindako kanpo pareten pintaketak.
 - 3.4 Soilik teila aldatuz egindako erretila lanak.
- 4.- "Obraren Jakinaren Gaineko" kontzeptutik salbuetsita daude, Historiko Artistikotzat Inbentariatu edo Katalogatutako eraikinetan burutzeko obrak hala nola ordenamenduz kanpo dauden eraikinetan burutzekoak.
 - 5.- Obra hauetakoren bat egiteko bide publikoan aldamioren bat jarri beharko balitz, horretarako lizentzia eskatu beharko litzateke.
 - 6.- "Obraren Jakinaren Gaineko" kontzeptuan sartutako obrei ekitea nahi duen pertsonak Udalari jakinaraziko dio, Udalak horretarako emango duen eskariaren bidez (lehen eraskina) edo, hala badagokio, Erroldan aurkeztutako idazki baten bidez, honako hau jasoz:
 - Eskatzailearen nortasuna.
 - Noren izenean iharduten duen (Nagusia, maizterra, ahaldundua, kontratista).
 - Burutu beharreko obrak: deskribapena eta kokalekua.
 - Obren aurrekontua.
 - Data eta eskatzailearen sinadura.
 - 7.- Udaleko zerbitzu administratiboek "Obraren Jakinaren Gaineko" agiria deiturikoa igorriko dute eta honen bidez egiaztatuko da obren egiterapena, Udalari betebeharra benetan bete dela jakinarazteko.
 - 8.- Obra txikiak egiteko lizentzien eskariekin batera, 6. artikuluan aipatutako xehetasunak edukitzeaz gain, honako hau gehituko da:
 - ✓ proiektatutako obrak eta, hala badagokio, finkari eman nahi zaion erabilera zehazten duen txostena, azkenean erabilgarri eta eraikita gertatu diren azalaren taula deskribatzailearekin ekin batera
 - ✓ egin beharreko obren. oinean, altxaeran eta: sekzioetan akotatutako krokisa eta eraikinen edo horien zati baten egungo egoerarena, honen gainean kokatzen bait dira obra horiek
 - 9.- Eskaerak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, doakionari 10 eguneko epean zuzen ditzan eskatuko zaio. Hori egingo ez balu, eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta espediente gainerako beste izapiderik gabe artxibatuko da, Administrazio Publikoetako Erregimen Juridikoko eta Administrazio Prozedura Orokorreko Legearen (30/92 Legea) 42.1 artikuluan xedatutako ondorioekin.
 - 10.- Alkateak edo honen ordezkioak izango du ahalmena obra txikiko lizentzien espedienteak ebazteko.
 - 11.- Obra txikiko lizentziak emateko epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ebazpen idatzirik jasoko ez balu, onartutzat joko da, onarpen horren eraginkortasuna ustezko egintzaren egiaztapena lortzearen menpe egon arren; Udalak, gainera, epe horretan berariaz ebaz dezake, indarrean



dagoen legediaren arabera.

Erabaki orokorrak

- 12.- Obrek ezin dute adierazitako neurrikoak baino handiagoak izan, eta gehiegikeriaren bat egiten bada, hirigintzako arauak urratu egin direla ulertuko da.
- 13.- Obrak burutzerakoan edozein aldaketa egin nahi izanez gero, Udalari jakinarazi beharko zaio.
- 14.- Tekniko edo Udaltzainak obretara nahi dutenean joan ahal izango dira langileak lanean ari direnean, noski, obrak lizentziarekin edo Obraren Jakinaren Gainekoarekin bat datoze la egiaztatzeko. Horregatik, "Obraren Jakinaren Gainekoaren" eta lizentziaren dokumentua obra egiten ari den lekuan gordeko da, egiaztapena burutzerakoan aztertu ahal izateko. "Dokumentua" erakusteko betebeharra beteko ez balu, agintaritzako mandatarien esana ez betetzeari dagozkion erantzunkizunak izango lituzke.
- 15.- Lanak egiterakoan eraikuntzako jokabide onak gomendatutako neurriak hartuko dira, eta baita eraikuntza alorreko Segurtasun eta Higieneari Buruzko Arudian aurrikusitakoak ere.
- 16.- Indarrean dagoen Legediaren arabera, manuzkoak diren gainerako baimenen kalteetan gabe ulertuko da lizentziaren eskaera eta lorpena.
- 17.- Lizentziak edo Obraren Jakinaren Gainekoak ematerakoan, lanak hasteko eta burutzeko eperik zehaztu ez bada, Obraren Jakinaren Gainekoetarako hilabetekoa dela ulertuko da, 3 hilabetetako lizentzietarako eta 6 hilabetetako amaitzeko, bi kasuetan.
- 18.- Obraren Jakinaren Gainekoaren eta Lizentzien zenbatekoa, Zerga-Ordenantzetan zehaztutakoa izango da.

Zenbateko hauen ordainketak emateko unean, aurrerakineko izaera izango du, izan ere, lizentziaren jabeak derrigorrez obraren benetako kostua aitortu beharko du amaieran, dagoen kitapen osagarria egin ahal izateko, egitea gertatuz gero.

Udal zerbitzuek eskakizun horien egiagarritasuna egiazta dezakete, obran parte hartu duten pertsonen aurrerakinak, egiaztagiria eta kostua zehazteko bestelako agiriak eskatuz.
- 19.- Arau hauek argitaratu eta hurrengo egunetik sartuko dira indarrean eta horrela egongo dira indargabetu artean.
